



Andoingo Udala

**Akta: Osoko Udalbatza**

OHIKO BILKURA: 2022/02/24

**Acta: Pleno Municipal**

SESIÓN ORDINARIA: 24/02/2022

**Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos****Bildutakoak: / Asistentes:**

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

**Zinegotziak: / Concejales:****EH-Bildu**

Andoni Alvarez Lete  
Estibalitz Mujika Tolaretxipi  
Jon Zulueta Berastegi  
Garazi Usandizaga Zubiria  
Julian López Aracama  
M<sup>a</sup> Teresa Etxeberria Arteun  
Xabier Fondón Pajares

**PSE-EE**

José Luis Verdasco Gutierrez  
Ascensión Parrón Peguero  
Petra Romero Pozo

**EAJ-PNV**

Maria Jose Izagirre Iturzaeta  
Alexander Huitzi Alfonso  
M<sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández  
Imanol Goenaga Egibar

**Elkarrekin Podemos**M<sup>a</sup> Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	<b>00000002</b>
Eguna	<b>2022/02/24</b>
Hasiera	<b>19,00</b>
Amaiera	<b>20,03</b>

**Idazkaria:**

Unai Rekondo Pérez

**Interpretaria**

Jon Unanue Lopez

**Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:**

Oscar Mendo González

**Gai Zerrenda:**

- 2022/01/27(e)an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

**Xedapenak**

- Udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektiboek emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzea zioarekin GFA-lankidetzaren hitzarmena.
- Haurren Pobrezia Zero Herralde Aliantzarekin bat egiteko erabakia onartzeko proposamena.
- Bastero Kulturgunea, Ondarreta kalea eta Kale Nagusiaren artean dagoen espazio publikoa "PLAZA MOREA" izendatzea
- Gastuak judizioz kanpo aitortzeko proposamena.
- Fakturei buruzko Kontu-hartzailatza txostena 2021.12.31ean.

**Orden del Día:**

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 27/01/2022.

**Parte Dispositiva**

- Convenio de colaboración con DFG para definir las condiciones para la financiación foral del Servicio de Ayuda a Domicilio prestado en el municipio a personas calificadas como dependientes y otros colectivos sujetos de atención.
- Propuesta de aprobación del acuerdo de adhesión a la Alianza país pobreza infantil 0.
- Nombramiento del espacio público situado entre Bastero Kulturgunea, Ondarreta kalea y Kale Nagusia como PLAZA MOREA .
- Propuesta reconocimiento extrajudicial gastos.
- Informe Interventora sobre facturas a 31.12.2021.



- |   |   |
|---|---|
| <p>7. 2022ko ekitaldiari dagokion kontrol finantzarioko urteko plana.</p> <p>8. Ordenantza fiskalen aldaketa (Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga eta zerbitzu publikoak eskaini edo jarduera administratiboak burutzeagatik tasak.).</p> <p>9. PSE-EE udal taldeak 2022/02/03ean aurkeztutako mozioa, Jazarpenik gabeko abortuari buruzkoa.</p> <p>10. PSE-EE udal-taldeak 2022ko otsailaren 14an aurkeztutako mozioari jarraiki, adiskidezaletasunari buruzko adierazpen instituzionala.</p> <p>11. Aitorpen Instituzionala SEADen 46. urteurrenekoari buruzkoa</p> | <p>7.- Plan anual de control financiero correspondiente al ejercicio 2022.</p> <p>8.- Modificación ordenanzas fiscales (Impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana y tasas por prestación de servicios públicos o realización de actividades administrativas)</p> <p>9.- Moción presentada por el grupo municipal PSE-EE el 03/02/2022 sobre el aborto sin acoso.</p> <p>10.- Declaración institucional sobre la amigabilidad a instancia de la moción presentada por el grupo municipal PSE-EE el 14/02/2022.</p> <p>11.- Declaración Institucional del 46º aniversario de la RASD.</p> |
|---|---|

**Kontrola**

12. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 0001/2022 zenbakidunetik 0271/2022 zenbakidunera.
13. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

**Parte de Control**

- 12.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 0001/2022 y la nº 0271/2022.
- 13.- Ruegos, preguntas y propuestas.

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

Alkate andreak, hitza hartu du, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi eta mila esker gurekin izateagatik, 2022ko otsailaren 24ko pleno honetan.

“Buenas tardes a todas y a todos, bienvenidos seais al pleno del 24 de febrero de 2022.

“Lehenik eta behin komentatzea egoera, momentuz jeisten ari gara eta horrexegatik, jada, zinegotzi guztiok hemen eserita egongo dira kontuan izanda oraindik Oscar Mendo jauna bajaran dagoela eta bere bozka Verdasco jaunarengan eskuordetuta dago.

“Decir que, los números, poco a poco estamos bajando, todavía estamos en 674, pero bueno, nos permite que otra vez, nuevamente, todos los concejales nos podamos sentar en esta mesa, salvo, D. Oscar Mendo que se encuentra todavía de baja y delega su voto en D. José Luis Verdasco.

“Guzti hau esanda, hasiera emango diogu gaurko udalbatzarrari.”

**1. 2022/01/27(e)an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2022/01/27 datako batzarraldiari dagokion akta aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman da.

**2. Udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektiboei**



**emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzea zioarekin GFA-lankidetzaren hitzarmena.**

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak 2021eko abenduaren 17an bidalitako idazkia (erregistro-zenbakia: 2021-5990). Idazki horretan adierazten da aurreko hitzarmenaren indarraldia amaitu dela eta beste bat sinatu behar dela 2021-2023 aldirako, udalerrian ematen den Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru-finantzaketarako.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuak lansaileko Arduradunak 2022ko otsailaren 07an egindako txostena.

Ikusirik Idazkariak 2022eko otsailaren 10an egindako txostena.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileak 2022ko otsailaren 15eko bileran emandako irizpena.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Gizarte Zerbitzuetan ikusi zen bezala, ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketarako departamentuak 2021eko abenduaren 27an bidalitako idazkia, non, adierazten da aurreko hitzarmenaren indarraldia amaitu dela eta beste bat sinatu behar dela 2021-2023 aldirako udalerrian ematen den etxez-etxe laguntza zerbitzuaren foru finantziatorako.

“Decíamos que este punto se trató en la Comisión de Servicios Sociales y teniendo en cuenta el escrito remitido por el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa el 17 de diciembre de 2021, en el que se informaba del agotamiento de la fecha de vigencia del convenio y la necesidad de firmar uno nuevo para el periodo 2021-2023 para la financiación foral del servicio de ayuda a domicilio en SAD que se presta en este ayuntamiento.

“Ekartzen da, hain zuzen, hitzarmen hori sinatzeko. Esan bezala iraupena bi urtekoa izango da, 2021eko urriaren 1etik, 2023ko irailaren 30era bitarte.

“Lo que hacemos es someter a votación la firma del convenio que, como hemos dicho tendrá una vigencia de 2 años, iniciando el 1 de octubre de 2021 y terminaría el 30 de setiembre de 2023.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, jarraian, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. Onartzea, Andoingo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia - Gizarte Politiketako Departamentuaren artean proposatutako lankidetzaren hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

**Xedea:** Udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzea.

**Iraupena:** 2 urte.

**Noiztik:** 2021/10/01.

**Noiz arte:** 2023/09/30.

2. Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Andoingo udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.
3. Hartutako erabakia Gipuzkoako Foru Aldundia - Gizarte Politiketako Departamentuari jakinaraztea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez eta, halaber, hitzarmena bidaltzea, sinatuta.

**3. Haurren Pobrezia Zero Herrialde Aliantzarekin bat egiteko erabakia onartzeko proposamena.**

Kontuan hartuz Haurren Pobrezia Zero Herrialde Aliantzarekin bat egiteko erabakia, Gobernuaren Presidentziak aurkeztua eta 2022-849 zenbakiarekin erregistratua, 2022ko otsailaren 7an.

Gizarte Zerbitzuetako arduradunaren txostena ikusi da, 2022ko otsailaren 7koa, aliantza bat egiteko erabakiaren aldeko txostena ematen duena.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileak 2022ko otsailaren 15eko bileran emandako aldeko irizpena.



Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Baita ere hau Gizarte Zerbitzuetako batzordean ikusi zen, dakizuenez, garapen jasangarrirako 20-30 agendak 17 helburu ditu eta horietako lehena pobreziari amaiera ematea da. Helburu hau aipatzean, zalantzarik gabe, askotan beste kontinente batzuk ikusi araztera garamatza baina, Andoainen arrakala soziala errealitate bat da. Auzokide eta familia kopuru handi bat desabantaila sozial egoeran dago eta bereziki haurtzaroan jarri nahi dugu gure helburua.

“Decía que, como se vio en la Comisión de Servicios Sociales la agenda 20-30 sobre desarrollo sostenible, cuenta con 17 objetivos, siendo el primero de ellos poner fin a la pobreza. Al referirnos a este concepto, muchas veces pensamos en otros continentes pero en Andoain, tenemos que reconocer que la brecha social es una realidad.

“Un número nada despreciable de vecinos y familias se encuentran en situación de desventaja social y en especial, queremos poner el foco en la infancia.

“Pobrezien belaunaldien arteko transmisioa haustea gizarte osoaren helburua izan behar du. Hau da, haur bat ingurune jakin batean jaiotzen delako desabantaila egoera batetik abiatzen da berdinaren aurrean, onartu ezin dugun eta onartu behar ez dugun errealitatea da.

“Romper con la transmisión intergeneracional de la pobreza debe ser objetivo de toda la sociedad. Que, ningún niño, por el hecho de haber nacido en un medio determinado parta de una situación de desventaja frente a sus iguales es una realidad que no podemos, ni debemos permitirnos.

“Zentzu honetan, Haurren Pobreziaren aurkako Goi Komisarioa, haurren pobrezia 0 aliantzara atxikitzeko akordio bat bultzatzen ari da. Ekimen honen helburua haurren pobreziaren bidea aldatzea da, batetik, parte hartzearen bidez eta funtsezko eragile askoren arteko akordioak lortuz. Bai, administrazio publikoekin, enprekin, fundazioekin eta 3. sektorearekin.

“Aliantza honek, ahulezia egoeran dauden haur eta nerabeei eragiten dieten desberdintasunen aurka borrokatzeko estrategiak eta inbertsioak sustatzen ditu.

“Decíamos que, en este sentido el Alto Comisionado contra la Pobreza Infantil está impulsando un acuerdo de adhesión a la Alianza País Pobreza Infantil 0. Iniciativa que tiene como objetivo cambiar la senda de la pobreza infantil, mediante la participación conjunta y la consecución de acuerdos entre un amplio conjunto de sectores clave, entre ellos, las administraciones públicas, empresas, fundaciones y el tercer sector.

“Esta Alianza promueve estrategias e inversiones para luchar contra las desigualdades que afectan a niñas, niños y adolescentes en situación de vulnerabilidad.

“Dokumentua aztertuta eta proposatzen diren helburuak, erronkak eta programak aztertuta, gure udalaren programaren zati bat dagoeneko nahi diren helburuak eta erronkak azpimarratzen ari da, hau da, Tratu On, Emantik programak, Ongi Etorri programa, eskolaz kanpoko dirulaguntzak.

“Gainera atxikimendu horrek, estrategia berrien garapenean aurrera egiteko aukera eman liezaiguke. Hau guztiagatik, atxikimendua sinatzeko proposamena ekartzen dugu gaur udalbatzarrerara.

“Decíamos que, examinando el documento y analizando los objetivos, retos y programas que se proponen, parte de los programas que ya estamos implementando en el ayuntamiento de Andoain están indiciendo en los objetivos y retos que se pretenden, como el programa Tratu On, Emantik, Ongi Etorri o las ayudas extraescolares. Además, está adhesión nos va a dar la oportunidad de ir avanzando en el desarrollo de nuevas estrategias, por todo lo explicado, sometemos a votación la propuesta de adhesión.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. Haurren Pobrezia Zero Herrialde Aliantzarekin bat egiteko erabakia onartzea.
2. Alkateari ahalmena ematea akordio hori sinatzeko.
3. Akordio honen berri ematea Haur Pobreziaren aurkako Goi Agintariari.

**4. Bastero Kulturgunea, Ondarreta kalea eta Kale Nagusiaren artean dagoen espazio publikoa “PLAZA MOREA” izendatzea.**

Andoingo Udala duela hamarkada bat baino gehiagotik ari da emakume eta gizonen berdintasunaren



inguruko jarduera politikoak bultzatzen, ez garelako benetako komunitate demokratiko baten esparruan biziko, berdintasun hori, legeek aldarrikatzen dutenaz haratago, eraginkorra egiten ez dugun bitartean.

Enpleguko diskriminazioarekin edo familia- eta lanbide-erantzukizunen banaketan dagoen orekarik ezarekin lotutako egoeretan genero-desberdintasuna onartzen dugu, baina zailagoa da gure egunerokotasuna garatzen dugun agertokietan antzematea. Toponimia da horren adibide. Gizonezkoen toponimo ugari daude, eta Andoainen lau kale eta plaza publikok baino ez dituzte emakumeekin lotutako izenik.

Andoingo kale-izendegian eta, oro har, bizi garen hiri eta herrietan emakumezko izen gutxi egoteak erro historiko sakonak dituen gizarte-egoera bati erantzuten dio; izan ere, mendeetan zehar, emakumeak, haien presentzia, ekarpena eta lana ikusezin bihurtu dira, maila guztietan. Horrela, historian zehar emakumeak familiaren eta zaintzaren barruan zeregin nagusi batera baztertu dira, eta bizitza publikoarekin lotutako jarduerak egiteko aukera ukatu zaie: politika, artea, kultura edo zientzia. Beraz, kaleen izenen arteko desberdintasuna sexuen arteko desberdintasun historikoaren isla da, non espazio publikoa gizonen diseinatu duten, batez ere une historiko desberdinetan botere ekonomiko, politiko eta erlijiosoa zutenek.

Kaleen izenak tresna garrantzitsua dira hiriak persona edo erreferentziazko kolektiboak oso modu ikusgarrian ezagutu ahal izateko. Azken urteotan, genero-ikuspegia duten berdintasun-politiken eta hiri-gintzaren harira, emakumeen izenak sartzan ari dira kale-izendegietan, batez ere kale eta plaza berriak izendatuz, baita orain arte izenik ez zuten espazio publikoetan ere. Andoainen, Algodonerako Emakumeen Plaza dago, espazio publiko berri batean emakumeek gure udalerriko industria-hazkunderan egin zuten funtsezko ekarpena aitortzen duena.

Hala ere, ildo horretan aurrera egiten jarraitu behar da, eta gure udalerrian toponimo femeninoen presentzia areagotzeko asmoz, proposamen hau egin da.

Zehazki, udalerrian erreferentzia handiko espazio publiko bat izendatzea proposatzen da, gaur egun izen ofizialik ez duena, Bastero Kulturguneko sarreran dagoen plaza<sup>1</sup>, alegia. Plaza hori udalerraren erdialdean dago, eta Andoingo herritarren arteko topagune eta harremanetarako gune ezaguna da. Andoingo emakumeentzat, gainera, esanahi nabarmena du, Pausoz Pauso izeneko ekimena bere edizio guztietan hasi baitzen espazio honetan. Ekimen hori 2011 eta 2021 urteen artean egin zen, eta martxoaren 8arekin, Emakumeen Nazioarteko Egunarekin, lotutako ospakizunetan kokatzen zen. Ekimen horren helburua Andoingo emakumeen ekarpenak ikusaraztea eta ekarpen horiek balioestea zen, historikoki gure kontakizun kolektiboen itzalpeko eremura baztertu diren historiak argituz.

Beraz, plaza hori "PLAZA MOREA" izendatzea proposatu da, hainbat helburu betetzeko:

1. Emakumeen eta haien ekarpenen ikusgarritasunari lotutako toponimia zabaltzea, bai maila partikularrean, emakumeen izen propioen bidez, bai maila kolektiboan, proposatzen dugun kasuan bezala.
2. Udalerriko emakumeek espazio publikoan ikusarazteko egindako ekarpenen memoria historikoa gordetzea, Pausoz Pauso ekimenarena, esaterako.
3. Emakumeek genero-diskriminazioen eta gizarte-desabantailako, prekarietateko edo in-darkeriako egoeren aurrean emakume izateagatik bakarrik jasaten dituzten aldarrikapenei lotutako erreferentzia-gune izatea.

Izendapen honekin, Andoain inklusiboago baten eraketan urrats berriak eman eta bultzatu nahi dira, bere espazio publikoetan berez, bere kaleetan dagoen aniztasuna jaso eta islatuko duena. Aitortu ditzala emakumeen, izan zirenen, direnen eta izango direnen ekarpen eta borroka desberdinak, gure udalerrira begiratzearan bertan bizi eta beraien burua aitortua ikusi ahal izateko.

Hori guztia ikusirik, eta 1690/1986 Errege Dekretuaren, uztailearen 11koa, Toki Erakundearen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua onartzen duenaren 75. artikuluari eta 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoari jarraiki.

Ikusirik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Batzorde Informatzailearen 2022ko urtarrilaren 26ko irizpena.



Romero andreak, PSE-EE udal taldeko zinegotzia eta Berdintasuneko Zinegotzi Ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Proposamenean jartzen duen bezala, historian zehar emakumeen papera beti izan da bigarren mailakoa eta kale izenen arteko aldea sexuen arteko desberdintasunaren beste isla bat da. Emakumeok kaleak hartu ditugu, baita gure izenak gure herrietako kale izendegian jartzea falta zaigu, kaleetan, plazetan, eraikin publikoetan eta parke publikoetan ikusgai egitea. Gure jendeak, gure herrian bizitza egiten duen leku guztietan bada garaia sentitzeaz gain, ikusgai izaten, berdintasunean ere bai. Horregatik dira garrantzitsuak kaleen, plazen, parkeen, eraikin publikoen eta gure jendearen eguneroko bizitzako espazioen izenak emakumeak ikusi arazteko eta gure eskubideen aldeko borrokarako tresnarik indartsuena direlako.

“Andoingo Udalak ez du atzean geratu nahi, ez du mutu geratu nahi, ez du geldirik geratu nahi, ez du ezkututzen jarraitu nahi, baizik eta, emakumei eta beren eskubideen aldeko borroka nekazinari argia, ikusgarritasuna eta errekonozimendua eman nahi die.

“En el caso de Andoain, ya tenemos la Plaza de las Mujeres de la Algodonera, sin embargo hay que seguir avanzando en esta línea y con el objetivo de incrementar la presencia de topónimos femeninos en nuestro municipio y por eso se hace esta propuesta.

“¿Porqué este sitio? Porque para las mujeres de Andoain, además de un significado destaca ya que la iniciativa denominada Pausoz-Pauso comenzó en todas sus ediciones en este espacio y se ha celebrado durante 10 años, porque es un sitio situado en el centro del municipio y es un conocido punto de encuentro entre los vecinos y vecinas de Andoain.

“Con esta designación se pretende dar e impulsar nuevos pasos en la configuración de un nuevo Andoain, más inclusivo, que recoga y refleje en sus espacios públicos la unanimidad de sus representantes públicos en torno a las mujeres y su lucha y la visibilidad de la misma.

“Bastero Kulturgunearen eta Ondarreta Ikastetxearen artean dagoen plaza, espazio horretarako Plaza Morea-Andreurdinarena, hau da proposamena eta gustatuko litzaidake ezezkorik ez egotea eta isiltasunik ere.

“Guztiok, egon gaitezen orain arte izenda ezinak izan direnen alde. Emakumeen ikusgarritasunaren eta haien borrokaren alde. Izan ere, apaltasunez, uste dut proposamen hau denok partekatzen eta borrokatzen dugula, udaleko alderdi politiko guztiak eta herriko asoziazionismotik aspaldidanik aurrera daramagun politika feminista partekatzen duten pertsonak.

“Desde aquí os pido a todos y a todas que digais que sí. En esta lucha, no sobra nadie y hacemos falta todos, hombres, mujeres, gobierno, oposición, nacionalistas, no nacionalistas y todas las instituciones. La propuesta es rigurosa, trabajada y leal. Respetuosa con los consensos de este ayuntamiento y en línea ininterrumpida en favor de la lucha feminista. Nos gustaría poner en grande, en un lugar visible y honorífico de las calles de Andoain el nombre del papel de las mujeres y su lucha. No sea correspondido con un no, o con silencio, porque nos necesitan a todas.

“Emakumeok soberan ditugu isiltasunak, gure ikusezintasunaren aurrean babesten dituen aitzakiak. Emakumeok baterako lana eta leiala behar dugu gure eskubideen alde. Hori da, hain zuzen ere, Berdintasuneko langileen eta udaleko beste sailen lana eta dedikazioa apaltasunez esanik, nire apaltasunean, berriaz eskertu nahi ditudan emakumeak ikusarazteko proposamena. Mila esker.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Mujika andreak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Lehenik eta behin, eskerrak eman Euskara sailari, gaur, hemen, onartzera goazen izenaren inguruan egindako lan arakatzaila, izena bera esanguratsua izan dadin lehenengo proposamenetik ibilbide bat egin delako eta lehenik eta behin, eskerrik asko.

“Gaur hona ekarritakoa urrats garrantzitsua da. Eredu bat izendatzeko egin beharreko lehen urrats administratiboa. Herrietako kale eta espazioek gizonezkoen izenak izan dituzte eta gizonezkoenak izan dira eta, kaleak emakumezkoenak izan daitezen, beharrezkoa da, emakumezkoek espazioak irabazten jarraitzea.



“Guk, beti, bultzatuko ditugu horrelako erabakiak, baina, askotan esan ohi dugun bezala, denok ez ditugu gauzak modu berean egiten eta, batzordean ere horrela adierazi genizuen. Gure ustez, proposamen hau ez da ondo abiatu. Emakumeen erreferentzialtasuna sustatu nahi duen eremu bat izatea nahi bada, emakumei protagonismoa eman nahi diena, emakumeok, gure sentitzea nahiko genukeena, emakumeen partehartzailetza bultzatu behar dugula adierazten dugun honetan, prozesu partehartzaile bat izan ordez, emakumeen partehartzerik gabe eta emakumeen iritzi eta proposamenk aintzat hartu gabe erabakitzea goaz, lekua eta izena.

“Urrats administratibo honek, prozesu baten erabakia beharko luke izan. Aurten 10 urteren ondoren ez da pausoz-pauso ekimenik egongo ekintza horri iaz amaiera eman zitzaiolako eta bagenekien aurtengorako proposamen berri bat landu behar genuela, guztion artean, orain arte bezala, baina udal gobernuak pentsatu zuen ekintza zentrala, plazari izena jarriko diogu, izena bai, baina, horrek ez du bermatzen plazaren izana.

“Orain bai, orain horri edukiz janzteko emakumeen partehartzearekin kontatu nahi dugu eta errepikatzen dugu, guk ez ditugu gauzak modu berean egiten. Aurreko urteetan pausoz-pauso elkarlanean antolatu izan delako, hasieratik bukaerara. Udalaren parte-hartzea eta lantaldearen eskutik. Aurten berriz, 8.000 euroko gastua izango duen enpresa baten eskutik bideratua izango da ekimena.

“Izena eta izana dira beharrezkoak. Izena izango dugu eta gure nahia da, erabaki horretan parte-hartzeko aukerarik izan ez denez, gutxienez, Andoingo emakumeek izan dezatela, Plaza Morea-Andre Urdinari eman nahi diogun izanaren erabakitzeke aukera.

“Badakizute, prozedurarekin ez gaude ados, baina, guretzako funtsezkoa da berdintasunaren bidean horrelako urratsak ematea eta beraz, aldeko botoa emango dugu.”

Berriro ere, Romero andreak, hartu du hitza, honakoa adierazteko:

“Irakurketa desberdinak izan daitezke eta relatoa ere. Nik ez dut nahi gai honetan eztabaida zabaltzea. Ez da enpresa bat “para dirigir” martxoaren 8ko ekitaldia, ez da horrela eta batzordean azaldu nuen. Enpresa hori kontratatu zen laguntza eman zezan, orduan relatoa desberdina da. Partaidetzarekin lotuta, gai honetan, lehenengoz, Emakumeen Elkarteak, batzordearen aurrean, orduan badakite nondik nora, martxoaren proposamena zela eta beraiekin lan egiten ari dira. Ba hori relatoak desberdinak, eta nik uste dut ez direla horrela gauzak eta, bueno, nik, hemendik esan nahi dut, hasieratik, Berdintasun sailean sartu nintzenez, beti, beraiekin lan egin nahi izan da eta horrela egin da nire aldetik, adibidez, jende guztia gonbidatu nahi dut ekitaldi horretara, uste dut, pauso oso inportantea dela.”

Mujika andreak, erantzuten du:

“Bueno, pausoarekin erabat ados gaude, bakarrik, erantzun arren, errelatoa ze gairi buruz dira gertaerak? Hau da, egia da, bilera batean proposatzen dela lehengo proposamena izango dela Emakumearen plaza izena jartzea eremu horri eta horrelaxe dago jasota lehenengo aktan. Bertarutzen diren elkarte eta emakumeek jasotzen dute proposamena eta bigarren bilera batean eta aktan ere, horrela jasota dago, elkarte bateko emakume batek aipatzen du beraien elkartearen proposamen hori ez dutela egoki ikusi eta beste proposamen bat dutela. Orduan azaltzen zaie, ordurako Euskara sailak erantzun duela bestelako proposamen honekin eta ez dut zalantzan jartzen proposamena egokia denik, seguraski ere, hau onartua izango litzatekenik, baina, gauzak horrela izan ziren, hau da, ez da parte hartzeko aukera egon, eraman dutenean jada bestelako proposamen bat egon delako eta, bakarrik, hitz egiten ari gara prozedurari buruz, emakumeekin bi bilera egin dira eta orain, momentu honetan, nor ari da ekimena antolatzeko deiak egiten? Non daude emakumeen antolatzeko bilera horiek? Ez daude. Guk esaten dugu, hori, modu hori, beste modu batera egiten ari dela eta, hori ez da errelatoa, hori errealitate bat da. Gaur egun ari da enpresa profesional bat egiten bere lana eta oso ondo egingo du, seguro, baina, hori horrela gertatzen ari da. Gaur egun ez dago Plaza Morea ekimena antolatzeko bilgunerik Andoingo emakume eta mugimendu feministarekin. Hori besterik ez eta, guretzak, esan dudana bezala, oso urrats garrantzitsua da.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:



1.- Bastero Kulturgunea, Ondarreta Kalea eta Kale Nagusiaren artean dagoen espazio publikoa *PLAZA MOREA* izendatzeko prozedurari hasiera ematea, erabaki honetako eranskinean jasotzen den kokapen geografikoaren arabera.

2.-: Espedientea jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz, 30 laneguneko epean interesdunek espedientea aztertu eta bere kasuan dagozkion iradokizun edo alegazioak aurkez ahal ditzaten.

3.-: Euskaltzaindiari dagokion irizpena eman dezan eskatzea.

## **5. Gastuak judizioz kanpo aitortzeko proposamena.**

Kontuan hartuz, oro har badakigu sektore publikoa osatzen duten administrazio desberdinen artean, tokiko administrazioa dela herritarrengandik gertuen dagoena eta, hortaz, administrazio honetara zuzentzen dituztela, lehenik eta behin, beren eskaerak.

Tokiko Administrazioak herritarrek eskatzen duten arintasunera eta eraginkortasunera egokitu behar du bere jarduna. Horregatik, zenbaitetan, eta herritarrei erantzuteko, jarduera administratiboa ez da doitzen, zorrotz-zorrotz, berez zurruna den prozedura legalera.

Zentzu horretan, aurreko ekitaldian, zenbaitetan pertsonal, ondasunen hornidurari eta zerbitzuen prestazioari dagozkien aurrekontuko zuzkidurarik gabeko gastuak egin dira, guztiak udal zerbitzu desberdinen garapen arrunterako eta Udalak kudeatutako zerbitzuen prestaziorako behar-beharrezkoak eta ezinbestekoak.

Aurrekontu-kreditu nahikorik gabe gauzatu badira ere, Udala aipatu gastuak ordaintzera behartuta dago, horiek udal aurrekontura egotzi ondoren. Legegileak berak, ezinbesteko zerbitzuak emateko beharrezkoak diren baina nolabait ere “irregularrak” diren jarduera horiek ematen direla jakinik, aipatu gastuak dagokion ekitaldiko aurrekontura egotzeko aukera aurreikusten du. Egozpen hori, hasiera batean, debekatuta dago, aurrekontuaren urtekotasunaren printzipioari jarraiki, baina kredituen judizioz kanpoko aitorten espedientearen bidez izapidetzea ahalbidetzen da.

Kontuan izanik administrazioarekiko kaltetzea saihesteko eta, hortaz, administrazioaren aberaste bidegabe edo arrazoigabea saihesteko, ezinbestekoa eta derrigorrezkoa dela egindako gastu horiek ordaintzea; kontuan izanik, halaber, gastuak egungo ekitaldira egotzea.

Kontu-hartzaileak (2022/01 erref.) 22.02.14an egindako txostena ikusi ondoren

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2022/02/18(e)ko bileran emandako aldeko irizpena

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kontuan hartuz, sektore publikoa osatzen duten administrazio ezberdinen artean, udala, tokiko administrazio dela, herriarengandik gertuen dagoena.

“Teniendo en cuenta que entre las diversas administraciones que integran el sector público, el ayuntamiento es la administración local más cercana a los ciudadanos.

“Baita ere, tokiko administrazioak herritarrek eskatzen duten arintasunera eta eraginkortasunera egokitu behar duela bere jarduna.

“Que la administración local ha de procurar ajustar su actuación a la agilidad y eficacia que demanda su ciudadanía.

“Zentzu honetan, aurreko ekitaldian zenbaitetan pertsonal ondasunen hornidurari eta zerbitzuen prestazioari dagozkion aurrekontu zuzkidurarik gabeko gastuak egin direla, guztiak, udal zerbitzu ezberdinen garapen arrunterako eta udalak kudeaketarako zerbitzuen prestaziora, behar beharrezkoa eta ezinbestekoak direnak. Hori kontuan izanda, aurrekontu kreditu nahikorik gabe gauzatu badira ere, udala, aipatu gastuak ordaintzera behartuta dago, horiek udal aurrekontura egotzi ondoren.

“Decíamos que, se han llevado a cabo, en este sentido, en el ejercicio anterior determinados gastos sin consignación presupuestaria correspondientes a personal, a suministros de bienes y prestación de servicios, todos ellos necesarios e indispensables para el normal desenvolvimiento de los distintos servicios municipales y la prestación de los servicios gestionados por el ayuntamiento. Aún llevados a cabo sin contar con crédito presupuestario, adecuado y suficiente, el ayuntamiento está obligado al pago





de los citados gastos, previa imputación de los mismos al presupuesto municipal.

“Hau guztia kontuan izanik, proposatzen da hemen, aurreko ekitaldian egindako gastuak, aurrekontu arruntera egozteko kredituak aurkezteko espedientearen instrukzioa egitea, zenbatekoa guztira 600.254 eurokoa.

“Decíamos que, teniendo en cuenta todo ello, se procede a la instrucción del oportuno expediente de renacimiento extrajudicial de créditos no imputados en su momento por falta de consignación presupuestaria, por importe total de 600.254 euros.

“Dokumentazioan faktura guztiak dituzue zuen esku.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, aurreko ekitaldian egindako gastuak, bere garaian aurrekontuko diru-izendapenik ez izateagatik egotzi ez zirenak, aurrekontu arruntera egozteko KREDITUAK AURKEZTEKO espedientearen instrukzioa egitea onartu du, zenbatekoa, guztira, 600.264,48 eurokoa da.

#### **6. Fakturei buruzko Kontu-hartzailatza txostena 2021.12.31ean.**

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Dakizuenetz eta legeak dion arabera hiru hilabete behin ekarri behar ditugu.

“Como todos saben, así lo marca la ley, trimestralmente tenemos que dar a conocer las facturas que el ayuntamiento todavía no ha pagado.

“Horri jarraituz, 2021eko abenduaren 30ean, registrados con pago ordenado. 1.235.424 euro izango liritezke eta registradas sin pago ordenado, 71.078 euro.

“A 31 de diciembre de 2021 serían, registradas con pago ordenado, 1.235.424 euros y registradas sin pago ordenado, 71.078 euros.”

Se da cuenta del informe emitido por la Interventora de fecha 31.12.2021, sobre cumplimiento de plazos de pago y otros aspectos a informar de las operaciones comerciales del cuarto trimestre de 2021 y el Pleno de la Corporación se da por enterado.

#### **7. 2022ko ekitaldiari dagokion kontrol finantziarioko urteko plana.**

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno. Kasu honetan, 2022 ekitaldiari dagokion kontrol finantzieroko urteko plana, lehenengo aldiz egin da eta batez ere, administrazio publikoaren ondasunen eta diruzainaren integritatea babesteko, zein kudeaketa ekonomiko egoki bat bermatzeko.

“Decíamos que este año por primera vez, se ha elaborado un plan anual de control financiero correspondiente al ejercicio 2022, por parte de la intervención municipal y con la finalidad de salvaguardar la integridad los bienes y caudales de la administración pública, así como, garantizar una adecuada gestión económica.

“Plan honetan 2022 ekitaldiari dagokion kontrol finantziarioko eginkizuna arautzen da, zeinak, kontrol iraunkorraren auditoritza publikoaren ete eraginkortasun kontrolaren bidez egiten dena.

“Decíamos que en este plan se regula la función de control financiero, mediante el control permanente, la auditoría pública y el control de eficacia correspondiente al ejercicio 2022.

“Horretarako, batetik, arriskuen ebaluazio eta azterketa gastuetan egongo da.

“Para ello se va a realizar una evaluación y análisis de riesgos en los gastos.

“Baita ere, udal aurrekontu orokorreko gastu egoerari dagokionez, batetik, kontrol iraunkorra, kontratazio alorrean egingo da, baita ere, kontrol iraunkorra dirulaguntzen alorrean eta, bukatzeko, langile gastuen etengabeko kontrola.

“En lo que se refiere al estado de gastos del presupuesto general municipal se va a hacer un control permanente en materia de contratación, también un control permanente en materia de subvenciones y ayudas y un control permanente de los gastos de personal.



“Bigarrenik, aurrekontu orokorreko dirusarreraren egoerari dagokionez, dirusarrerak egiaztatzea, zergen kobrantza kudeaketaren finantza kontrola eta kobratu gabe dauden eskubideen finantza kontrola.

“Decíamos que en relación del estado de ingresos del presupuesto municipal se va a hacer una comprobación de ingresos, un control financiero de la gestión de cobro de impuestos y un control financiero de los derechos pendientes de cobro.

“Diruzaintzari dagokionez, funtsak erabiltzeko plana, onarpena eta jarraipena.

“En relación con la tesorería un plan de disposición de fondos, su aprobación y seguimiento.

“Horretarako, noski, egutegi bat eta plan bat, plan guztiek duten bezala egutegi bat izango du horretarako.

“Como todos los planes, tendrá un calendario para su control y seguimiento.

“Orduan, batez ere, nire izenean, eskertzea interbentzioari egindako lana, hemendik aurrera, kontrol guzti hau, batetik egiteko eta bestetik, kontu emateko eta zuek jarraipena egin ahal izango dezue, kontrol eta fiskalizazioa egin ahal izateko.

“Decíamos que, bueno, desde luego, como responsable de la parte de Hacienda y Economía, agradecer al departamento de intervención la realización de este plan que, lógicamente se irá informando y todos ustedes podran controlar y fiscalizar.”

2022 ekitaldeari dagokion kontrol finantzarioko urteko planaren berri eman da eta Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

## **8. Ordenantza fiskalen aldaketa (Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga eta zerbitzu publikoak eskaini edo jarduera administratiboak burutzeagatiko tasak).**

Konstituzioko 140. Artikuluak udalerriei aitortzen dien autonomiaren oinarriaren gainean, Toki Jardunbideko Oinarri buruzko apirilaren 2-ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerriei bere burua antolatzeke ahalmena aitortzen die.

Ikusirik berriki eman den 2021eko urriaren 26ko 182/2021 Konstituzio Auzitegiko Epaiak, Toki Ogasunen Legearen testu bategineko (2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) 107.1 artikulua, 107.2 a) artikulua eta 107.4 artikulua konstituzio-aurkakoak eta deusezak direla adierazi du, eta horrek arau-hutsunea utzi du Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko zerga-oinarriaren zehaztapenari dagokionez, udal zerga hori likidatu, egiaztatu, bildu eta berrikustea eragozteraino.

Nahiz eta epaiak ez duen zuzeneko eraginik Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauan, kontuan izan behar da zerga oinarriaren zehaztapenari dagokionez han jasotzen den erregulazioak baduela antzekotasun handia Toki Ogasunak arautzen dituen Legean (mar txoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako testu bateginean) jasotzen den eta konstituzioaren aurkako deklaratu den erregulazioarekin.

Azaldutako arazoiek eragindako ziurgabetasun juridikoaren aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu-Araua onartu zuen (GAO 2021/11/17), Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzekoa.

Xedapen iragankor bakarrean ezartzen denez, zerga ezarrita duten udalek beren ordenantza fiskalak aldatu beharko dituzte, foru eta arau dekretu hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean, bertan xedatutakora egokitzeko.

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2022/02/18(e)ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kasu honetan, ordenantzaren eguneraketa, zenbait gauza sartuta zeuden, 1999koa delako, batez ere, batetik, Hirilurren gehikuntzaren gaineko zergaren ordenantza fiskala eguneratuko dugu, batez ere, 1, 4., 5. 7., 8. 9., 10., 12., 13., 14. eta 6. Eranskina.

“Decíamos que sobre todo la modificación es para la actualización de muchos de los conceptos que en ella figuran, porque es una ordenanza que ya estaba muy antigua y, en ese sentido, se van a actualizar los artículos 1,4, 5, 7, 8, 9, 10, 12, 13, 14 y el anexo 6.



“Seigarren eranskinean, aipatu, ogasun batzordean azaldu zen bezala, bi aldaketa nagusi egongo direla, batez ere, diputaziotik bideratzen dizkigutenak, aurten aldatu dituztelako bai koefizienteak eta baita ere, karga tasa.

“Decíamos que, sobre todo en el anexo 6, tal y como se explicó en la Comisión de Hacienda y Economía, sobre todo, se van a cambiar por una adaptación que se ha hecho desde la Diputación Foral de Gipuzkoa, tanto los coeficientes, como el tipo de gravamen.

“Han azaldu zen bezala, batez ere, koefizienteak. Diputazioak markatu dituenak izango dira eta noski, gure kasuan, karga tasa eguneratu behar dugu errealitate horretara.

“Decíamos que vamos a mantener los coeficientes que ha marcado la Diputación Foral de Gipuzkoa y eso conlleva a que tenemos que modificar bastante el tipo de gravamen para que se ajuste a ello.

“Baina bai, azaldu nahi dugu eta zehaztu behar dugu, herritarrek ordaindu behar duten dirua, gutxi gora behera, berdina izango dela. Egin nahi dugu, batez ere, lehen tramuetan, hau da, etxe bat erosten badugu eta denbora gutxian saldu ezkerero, hor bai pixka bat igotzen da, azken finean, guztion artean, nahi dugulako espekulaziorik ez egotea.

“Decíamos que, sobre todo va a penalizar más lo que son los primeros años de compra y venta de las casas, pues, un poco se quiere actuar en la especulación.

“Hori izango litzateke gainbaliori buruz direnak, eta ondoren pasatuko gara, zerbitzu publikoak eskaini edo jarduera administratiboak burutzeagatik tasetara.

“Una vez explicadas las plusvalías, el otro cambio es por prestación de servicios públicos o realización de actividades administrativas.

“Kasu honetan ere, zenbait artikulua aldatzen dira eta batez ere salbuespenak eta hobariak.

“Se trata de la redacción de algunos textos, sobre todo se trata de la parte de exenciones y bonificaciones.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena onartzea, hasierako izaeraz eta datako ondorioekin. Aldatzen diren ordenantzak honakoak dira:

#### **6.- Hirilurren Balio-Gehikuntzaren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskala.**

a) Ondorengo artikulua aldatzen dira eta honela geratzen dira idatzita:

### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. Artikulua.-**

Udal honek, Toki Ogasunak erregulatzen dituen Lurralde Historikoko Foru Arauen eta tributuari dagokion Foru Arauean aurrikusitakoaren arabera Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga ezarri eta exijitzen du, Ordenantza honi jarraiki, balio-gehikuntza sortu den aldiaren arabera koefizienteen taula eta tarifa aplikagarriak dituen VI Eranskina parte delarik.

### **III. ZERGARI LOTUTA EZ DAUDENAK**

#### **4. Artikulua.-**

1 - Ez dira zerga honi lotuak egongo:

a) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako landalurtzat hartzen diren lurren balio gehikuntza. Beraz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako hirilurtzat hartzen diren lurren balio gehikuntza zergari lotuta egongo da, Katastroan edo Zergaren Erroldan halakotzat ageri edo ez.

b) Hiri-lurren balio gehikuntza, baldin eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak VIII. tituluaren X. kapituluaren araututako erregimen berezia aplikagarria zaien eragiketetatik eratorritako eskualdaketen ondorioz gertatu bada. Aipatutako foru arauak 101. artikuluan jasotakoaren



arabera ematen diren lurren gaineko eragiketak hortik kanpo geratzen dira, lurrak jarduera adar batean sartuta ez daudenean.

Aipaturiko lurrak geroago eskualdatzen badira, VIII. tituluaren X. kapituluan jasotako eragiketetatik eratorritako eskualdaketak ez du etengo balio gehikuntza sortu duen urte kopurua.

c) Ezkontideek ezkontza sozietateari ondasun eta eskubideen ekarpenak egitea, ekarpen horien ordainetan ezkontideei ondasun eta eskubideak modu egiaztatuan esleitzea, eta ezkontideei beren hartzeko komunaren ordainetan eskualdaketak egitea.

Xedapen bera aplikatuko da, aurreko paragrafoan aipatutako kasu berdinetan, Izatezko bikoteei buruzko maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak xedatutakoaren arabera osatutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, esleipen eta eskualdaketei dagokienez.

Ez da zergapetuta egongo, era berean, ondasun higiezinak ezkontideen artean, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera osatutako izatezko bikoteko kideen artean edo seme-alaben alde eskualdatzen direnean, baldin eta ezkontza baliogabetu edo senar-emazteak banandu edo dibortziaztean edo izatezko bikotea amaitzean emandako sententziak betetzearen ondorio badira, hurrenez hurren ezkontzako erregimen ekonomikoa edo ondarezko erregimen ekonomikoa zainahi dela ere.

2.- Lurren eskualdaketak ez dira egongo zergari lotuta eskualdaketa eta eskurapen datetan haien balioen artean dagoen diferentzia kalkulatzeko balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzen denean.

Horretarako, balio gehikuntzarik ez dela izan frogatu nahi duen pertsona edo entitate interesdunak eskualdaketa aitortu beharko du, eta eskualdaketa eta eskurapena dokumentatzen dituzten tituluak aurkeztu ere bai; ondorio horietarako, 6. artikuluan aipatzen diren pertsonak edo entitateak izango dira interesdun.

Eskualdaketan balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzeko, honako hau hartuko da lurraren eskualdaketa edo eskurapen balioetatik kasu bakoitzean: eragiketa dokumentatzen duen tituluan ageri dena edo, kasua bada, Zerga Administrazioak egiaztatutakoa. Ondorio horietarako, eragiketa horietan izandako gastuak edo aplikatutako tributuak ezingo dira konputatu, eta ez da inolako eguneratzerik izango denbora igarotzeagatik.

Higiezinaren eskualdaketan lurzorua eta eraikuntza sartzen direnean, lurzoruen balioetatik hartuko da zergaren sortzapen egunean lurraren katastro balioak katastro balio osoarekiko duen proportzioa aplikatuta ateratzen dena, eta proportzio hori aplikatuko zaie bai eskualdaketa balioari eta, hala badagokio, baita eskurapen balioari ere.

Eskurapena edo eskualdaketa kostu gabekoa izan bada, aurreko paragrafoetako erregelak izango dira aplikagarriak, eta, hala dagokionean, gorago aipatutako bi balio konparagarrietatik lehenengotzat oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan aitortutakoa hartuko da.

